

ANA LEACHE ARRESE

SAKANAKO MANKOMUNITATEKO IDAZKARIA

ZIURTATZEN DUT:

2024ko abuztuaren 8an ospatutako Batzar Orokorrean, ahobatez, honako akordio hau hartu zela:

LEHENENGOA.- Geserlocal SL Sakanako Mankomunitateko ente instrumental gisa deklaratzeko, Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen 8. artikulua ezartzen dituen ondorioak izan dadin.

BIGARRENA.- Egiten diren enkarguen eremua honako hau dela adierazteko: diru-bilketa exekutiboari, isunen espedienteen kudeaketari, kontabilitateari eta abarri dagozkien prestazioak, baita sozietatearen xedearekin bat datozen beste batzuk ere.

HIRUGARRENA.- Sakanako Mankomunitateko lehendakariari ahalmena ematea Geserlocal SL-ri egiten zaizkion prestazio-enkarguak sinatzeko.

LAUGARRENA.- Erabaki hau Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioari eta Geserlocal SL-ri jakinarazteko, eta Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratzeko.

Honela jasota gera dadin eta ondorio osoak sor ditzan ziurtagiri hau luzatzen dut.

ANA LEACHE ARRESE

**SECRETARIA DE LA MANCOMUNIDAD DE
SAKANA**

CERTIFICO:

Que la Asamblea General celebrada el día 8 de agosto de 2024 adoptó por unanimidad el siguiente acuerdo:

PRIMERO.- Declarar a Geserlocal S.L como ente instrumental de la Mancomunidad de Sakana a efectos de lo dispuesto en el art. 8 de la Ley Foral de Contratos Públicos.

SEGUNDO.- Declarar que el ámbito al que se pueden circunscribir los encargos que se realicen serán las prestaciones correspondientes a la recaudación ejecutiva, gestión de expedientes de multas, contabilidad etc, así como otras que encajen en su objeto social.

TERCERO.- Falcultar al Presidente de la Mancomunidad de Sakana para la firma de los encargos de prestaciones que se realicen a Geserlocal S.L.

CUARTO.- Notificar el presente acuerdo a la Federación Navarra de Municipios y Concejos, a Geserlocal S.L. y proceder a su publicación en el Portal de Contratación de Navarra.

Y para que así conste, y surta plenos efectos expido el presente certificado.